

NOLA ERAGITEN DIO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN EGOERAK ZURE SEME-ALABARI?

- **Irakasleak baja** hartzen badu, noiz bidaltzen dute ordezkoa?
Tutoreak baja hartu eta bi-bost egunetan zure seme-alabak eskolako beste irakasleekin egon behar dira, hauek orduro aldatzen doazelarik.
- Zenbatekoa da **ratioa**?
2008/2009 ikasle/gela ratioa aplikatuz, 900 gela gutxiago eta 1900 irakasle gutxiago.
- HHn ratioa 23koa da baina 25era iritsi daiteke. LHn 25ekoa, baina errepikatzaileak baldin badaude, 26 edo 27ra helduz, gela horiek ez dira bikoizten, beraz 27 ikasleko klaseak egon badaude.
- **Hezitzaileak**?
Gutxiegi, egun osoko arreta behar duten ume asko dago, eta hezitzaileak ordu batzuk besterik ezin dira haiekin egon, beraien ordutegia ume askoren artean banatu behar da eta.
- Konpetentzia digitala landu behar da, baditugu horretarako baliabideak? Irakasleek badute formakuntza?
Gaur egun **konpetentzia digitala edo besteak** lantzen direla esatea, gezur hutsa da. Konpetentziak notekin ezin dira ebaluatu, konpetentziak ez dute bat egiten ebaluazio sistemarekin.
- Ikasleei egokituriko programak oso politak dira, baina noiz egin behar dira, nork egin behar ditu?
- Irakasleak **etengabeko formakuntza** behar du, baina noiz eta nola?
Formakuntza dexente bat jasotzeko denbora behar da, eskolan "libre" gelditzen den denbora ez da nahikoa. Gure kabuz bilatu behar dugu, egunean egon nahi baldin badugu.
- **Behin-behinekotasuna** jasan ezina da, **10 irakasletik 4** behin-behinekoak dira.
Urteak lan eta lan, eta puntuak lortu ondoren etxetik hurbilago egoteko aukera gehiagorekin, Oposaketara aurkeztu, gainditu eta plaza bat lortu ondoren... sistemak berriro etxetik urrun bidaltzen zaitu nahiz eta etxetik hurbil urte osorako lanpostuak egon.